PIT 2006-2009 ITP

Informatika eta Telekomunikazio Plana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Dirección de Informática y Telecomunicaciones

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2007

Argitaraldia:	1.a, 2007ko abuztua
Ale-kopurua:	500 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Diseinua eta maketazioa:	agoranet
Inprimatzea:	Estudios Gráficos ZURE, S.A. Carretera Lutxana-Asua, 24 A - 48950 - Erandio Goikoa (Bizkaia)
LG:	BI-2506-07

Edukien aurkibidea

	Orrialdea
Hitzaurrea	5
Sarrera	7
Egungo egoera	11
• Abiapuntua	13
• Aurreko ITParen balantzea	13
• ITP berri baten beharra	13
• Egungo egoeraren diagnostikoa	15
Joera Teknologikoak	17
• Informazio Teknologien Estrategia	19
• Aztertutako joerak	19
Estrategia Plana	21
• Estartegia Ildoak eta Jarduketa Ardatzak	23
- Azpiegitura Teknologikoak	24
- Administrazio Elektronikoa	28
- Kudeaketaren Hobekuntza	32
- Antolaketa	34
• Ondorioak	38
Ekintza Plana	39
• Planaren Kudeaketa eta Finantzaketa	41
• ITParen Gainbegiratzea eta Kontrola	41
• Goi-mailako egutegia	42
• Aurrekontu Bateratua	43
• Estrategia Ildoen Plangintza: xehetasunak	44
• Ondorioak	58

Hitzaurrea

Teknologia berrietan oinarritutako zerbitzu publikoak eskaintzeko erakunde europearren orientabide estrategikoekin bat etorriz, 2006-2009 Informatika eta Telekomunikazio Planak Administrazio Elektronikorako azpiegitura teknologikoa finkatzea eta hobetzea du helburu, Jaurlaritzako Sailek herritarrei eta enpresei zerbitzuak era telematikoan ematea ahalbidetzeko eta beste administrazio batzuekiko elkarreragingarritasuna sustatzeko, komunikazio hori erraztu behar duten estandar irekien erabilera bere eginez.

Legegintzaldiaren hasieran, besteak beste, honako konpromiso hauek bildu genituen gobernatzeko programan, herritarren mesedetan Administrazio modernoa, hurbila, eraginkorra eta pertsonen zerbitzura lortu nahian:

"Herritarrari ematen zaion arreta hobetzea, kanal anitzeko ikuspegi zentralizatu batetik".

"Administrazio elektronikoa garatzea, premiak eta aukerak asebetetze aldera, horretarako zerbitzu berriak diseinatuz, haiek baliatzeko behar den euskarria emanez eta erabilera bul tzatuz".

"Informazio-teknologia berriak sustatzen jarraitzea, egungo eguneko zerbitzuak, aplikazio elektronikoak eta abarrekoak garatuz".

"Euskal Administrazio Publiko guztien arteko sare fisiko, teknologiko eta logiko bat ezartzea, Administrazioa herritarrengana hurbiltzeko, masa kritiko nahikoa ziurtatzeko azpiegitura teknologikoak garatu eta, azkenik, Administrazioen elkarreragingarritasuna eta informazio-trukea erraztu daitezen".

Ziur nago Plan hau bitarteko egokia eta premiazkoa dela aipatu konpromisoak lortzeko, gure administrazioaren lehiakortasunmailarako mesedegarri izateaz gainera. Euskal Gizarteak eskatzen dituen kanal anitzeko zerbitzu berriak, orobat sailen ekimen berritzaileak, irmoki eta berme osoz oinarrituko ditu Informatika eta Telekomunikazio IV. Planak.

Idoia Zenarrutzabeitia Beldarrain
Lehendakariordea eta Eusko
Jaurlaritzako Ogasun eta
Herri Administrazio Sailburua.

Sarrera

Sarrera

Euskal gizarteak, etengabe, azpiegitura teknologikoak, administrazioaren kudeaketa eta antolaketa eguneratzeko erronkari aurre egiten dio, Informatika eta Telekomunikazioen arloan dagoeneko izan diren eta datozen urteetan izango diren aurrerakuntzetara egokitzeko.

Komunikazio eta teknologia sistemen estrategia-plana zutabe nagusia da Euskal Administrazioaren modernizazioa eta eraldaketa gauzatuko badira, Estatuan jarraitzen ari diren joerekin eta Europar Batasunaren ildoekin bat etorriz, Administrazio Elektronikoa, Informazioaren, Komunikazioaren eta Jakintzaren Gizartea garatzea helburu. 2006-2009 Informatika eta Telekomunikazio Planaren oinarrizko printzipioak, estrategia-ildoak, xedeak eta jarduerak laburbiltzen eta erakusten ditu dokumentu honek. Guztiarekin ere, kontuan hartu behar da plan honetatik eratortzen diren eduki berritzaileak jadanik erabili izan direla 2006 eta 2007 urteetan.

2006-2009 ITP funtsezko tresna da informatikan eta telekomunikazioetan behar diren ekintzak bideratu eta aurrera eramateko. Jarduera hauek Jaurlaritzaren helburuak eta lehentasunak lortzeko bide ematen dute erabakitako politika-ildoak burutzeko orduan, eta Gobernugintza laguntzen dute era orekatu, orokor eta koherentean.

Aurkezten den Planak berrikuntzaren eta plangintza teknologikoaren aldeko politika sendo eta iraunkor baten babesa du. 1999. urtean, zegoeneko, 2000-2003 Informatika eta Telekomunikazio Plana idazteari ekin zion Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak, zenbait aurrekari aipagarriren orientabideen eta eraginaren bultzadaz. Plan hark Eusko Jaurlaritzaren Informatika eta Telekomunikazioei buruzko Politikaren estrategia-lerroak zehaztu zituen, eta ildo horien arabera hartu zituen arlo horretako erabakiak. Ondoren, Informazio eta Jakintzaren Gizartearen eraketa xedatu zen, Euskadiko bigarren ekonomia-eraldaketa nagusiaren hiru zutabeetako bat beharko zuena izan. 2002-2006 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana (EIGP) erreferentziako markoa izan zen Euskadin Informazioaren Gizartea garatzeko. Besteak beste, Planak hainbat espazio zehazten zituen gizarte osoak eta, bereziki, Herri Administrazioak parte har zezaten. EIGPtik eratortzen ziren jardueren garrantziak, halaber informazioaren teknologien etengabeko eboluzioak eta beraiek erabiltzeko aukerek, plangintza eta estandarizazio lanei behin eta berriro erreparatzea aholkatzen zuten, beren eguneratzeak eta iraunkortasunak aldi oro jarraitze aldera.

Ondorioz, 2002. urtean, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak bidezkotzat jo zuen Eusko Jaurlaritzaren Informatika eta Telekomunikazio Plan berria egitea 2003-2005 aldirako. Plan hori 2004-2006ko Administrazio eta Gobernu Elektronikorako Plan Estrategikoarekin (AGEPE) koordinatuta garatu behar zen eta Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritzak idaztekoa zen. Helburu nagusia Informazioaren eta Jakintzaren Gizartea eraikitzea zen, programa egokiak garatuz teknologia indartu eta Gizartearen eskura jartzeko, baita Administrazioa bera eraberritzeko ere. Hortaz, 2003-2005 Informatika eta Telekomunikazio Planaren egitekorik behinena Euskadiko Administrazio Orokorrak Intenet bidez eskainitako zerbitzuak hobetzea eta hedatzea izan zen. Horretarako, zerbitzu-atariaren elkarreraginak homogeneizatu, kanal anitzeko sarbidea eskaini eta tele-izapidetzea egiteko estrategia komuna ezarri zen. Lan honen guztiaren emaitza izan da gaur egungo plataforma teknologiko bateratua. Bere interfaze trinko eta batuari esker, herritarrek eta enpresaburuek Administrazioarekin hartu-emanak aise izateko kanal eta bide berriak dituzte. Hartara, zerbitzuen eta informazioaren trukea erraztu egiten da, Jaurlaritzako Sailen arteko lankidetza zabalagoa izan dadin.

Aurrekari hauetan oinarrituta, ezarritako lau estrategia-lerroak indartzea (Azpiegitura Teknologikoak, Administrazio Elektronikoa, Kudeaketaren Hobekuntza eta Antolaketa) egokitzat hartzen da. Horregatik, 2006-2009 Informatika eta Telekomunikazio Planak definitutako eredu hori hedatu egin behar du egungo sistemen integraziora eta zeharkako zerbitzu partekatuen sustapenera bildurik.

Era honetan, hasitako bideari ekiten jarraitzen dugu, azpiegituren berrikuntzan, Jakintzaren Gizartea eta aurrerakuntza teknologikoak Administrazioaren kudeaketan eta erabileran txertatzeko lanean, herritarrei eta enpresei zerbitzu hobea eta eraginkorragoa eskaintzeko xedez.



Egungo egoera

Abiapuntua

Eusko Jaurlaritzak ia hamarkada batez landu du gogotik Informazio eta Telekomunikazio Sistemen plangintza estrategikoa, jakinik berau zutabe gakoetako bat dela aurrerapausuak emateko Euskal Administrazioaren modernizazioan eta eraldaketan. Arlo honetan plangintza estrategiko bat erabilgarri izateko beharra 1999an gauzatu zen, orduantxe egin baitzen plan guztietarik lehena, bere baitan 2000-2003 aldia hartu zuena.

Aurreko **Informatika eta Telekomunikazio Plana, 2003-2005 ITP** izenekoa, Informazio eta Telekomunikazio Sistemak indartzeko, bultzatzeko, finkatzeko eta sendotzeko ahaleginaren jarraipena izan zen, erakundeen beste plan batzuekiko koordinazioan garatua, guztiak Administrazioaren modernizazioa eta Informazioaren eta Jakintzaren Gizartea eraikitzeari begira.

Plan horren helburu nagusiak honako hauek izan ziren: lehenik, Administrazioaren zerbitzuak hobetzea eta zabaltzea, herritar eta enpresekiko elkarreragina erraztuz; bigarrenik, estrategia komunak zehaztea Jaurlaritzaren barruan informazioa trukatzeko eta zerbitzuak eta elkarlana azkartzeko; eta azkenik, eredu berri honetarako azpiegiturak, plataforma teknologikoa eta euskarriegituraren antolaketa garatzea.

Hasitako lanari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko herritarrei eta enpresei ematen dizkien zerbitzuak hobetzeko eta zabaltzeko estrategia-ildoetan eta gakoetan sakontzan du Informatika eta Telekomunikazio Plan berriak. Sistemen integrazioaren alde egiten du eta, era berean, Administrazio Elektronikoaren eredu berriaren hedatzailea da, premia eta kezka berriak identifikatzeko bitartekoa. 2006-2009 ITP egiteko eta eratzeko abiapuntua aurreko planaren ondorioak dira, beraiek ematen baitiote Eusko Jaurlaritzaren Informatika eta Telekomunikazio Politikaren estrategia-plangintza egiteko behar den iraunkortasuna.

Aurreko ITParen balantzea

2003-2005 ITParen betetze-maila behar bezain egokia izan da. Azpimarratzekoa da itxiera-datan abiatutako edo amaitutako proiektuen kopurua, besteak beste estrategikoak izateagatik eta erabili duten baliabide-bolumen handiagatik aipagarriak diren zenbait proiektu.

Egindako jarduerak Administrazio Elektronikoaren aldeko aldaketa kualitatibo garrantzitsua izan dira, halaber proposatutako eredu berriaren euskarria diren azpiegitura teknologiko guztiak hornitzeko orduan. Hala ere, **zenbait eginkizun** badira:

- Sistemen eboluzio funtzionala eta teknikoa
- Ziurtapen eta izenpe elektronikoaren sustapena
- Kode irekien sarrera
- Contact Center/CRM-aren finkapena eta CAU-aren eboluzioa
- Administrazio, Erakunde eta Eragileekiko elkarlana
- Administrazio Elektronikoaren plataformara egokitzeko lanen amaiera
- Sailen eta Erakunde Autonomoen zerbitzuak garatzea eta txertatzea
- Zerbitzu elektronikoen ereduaren finkapena
- Trebakuntza areagotzea eta jakintza kudeatzea

Eginkizun hauek aintzat hartuz, Plan berri bat landu beharra dago, batetik lortutako aurrerapenak sendotzea eta haietan sakontzea ahalbidetzeko, eta bestetik etorkizuneko erronkak eta lehentasunak jorratzerakoan hautatuko den jarduera eta ondorengo erabakiak bideratzeko.

ITP berri baten beharra

Informatikaren eta Telekomunikazioen arloan Eusko Jaurlaritzak eta bere Sail eta Erakunde Autonomoek erabiliko dituzten estrategia-ildoak eta gakoak zehaztea du helburu 2006-2009 ITPk. Horregatik, bere erakunde eta Sail guztietatik, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko herritar eta enpresei eskaintzen dizkien zerbitzuak hobetzearen eta zabaltzearen aldeko apustua berretsi behar du, garapena eta ongizatea lortzen ahaleginduz. Nahitaezkoa da aurreko ITPk hasitako lan-ildoetan sakontzea sistemen integrazioari eta Administrazio Elektronikoaren eredu berriaren hedapenari dagokienez, baina oraingo aldian diren premia eta kezka berriak identifikatuz.

Administrazio eta Gobernu Elektronikorako Plan Estrategikoan (AGEPE) eta Informazioaren Gizarterako 2002-2005 Euskadi Planean (estatuaren markoan Avanza eta Moderniza planetan txertatzen dena) zehaztutako jomugekin bat etorriz, Informazio eta Komunikazio Teknologiak ezartzetik datozen alderdi anitzek ITP hau Eusko Jaurlaritzaren gainerako plangintzekin batera egin dadila eskatzen dute. Horrez gain, ITP berriaren planteamenduak berekin dakartza Europar Batasunak horri dagokionez diseinatu dituen ildoak eta orientabideak. Hala bada, Lisboako Estrategia abian jartzeko Europako Erakundeek hartu dituzten neurriei eta hitzarmenei zuzen-zuzenki lotzen zaizkie Eusko Jaurlaritzak bul tzatzen dituen hazkundea eta ongizatea. Horretarako, Europako

Batzordeak estrategia-marko berria proposatu du, "i2010 ekimena" deritzona, "hazkundea eta enplegua sustatzeko informazioaren gizarte europearra" aipatzen duena. Ekimen honek ekonomia digitala, irekia eta lehiakorra bultzatzen du eta Informazio eta Komunikazio Teknologiaren garrantzia nabarmentzen du. Batzordearen ekimen honen ondoren ministro-deklarazioa egin zen, Administrazio Elektronikoari buruz Manchesterren egindako Konferentzian hartutakoa, 2005eko azaroaren 24 eta 25ean, arlo honetan Europar Batasunaren lehentasunak zehaztu zituena.

Proposamenetan, besteak beste, zerbitzu publikoak hobetzearen alde egiten da, pertsonen bizi-kalitate maila jasoko duten administrazio publiko eraginkorrak eta berritzaileak lortze aldera. Horretarako, arestian aipatutako i2010 estrategia-markoaren barruan, **Administrazio Elektronikoa ezartzeko eta teknologia berrietan oinarritutako zerbitzu publikoei buruzko jarraibide estrategikoak zehazteko Ekintza Plana** egitea erabaki zen.

Ekintza Plan honek 2006ko apirilean hitzartu zen. Europako Administrazio Elektronikoaren ildo nagusiak azaltzen ditu eta foku-puntuak aurkezten ditu programak, ekimenak eta arlo honetan 2006tik 2010era politika bateratuak hartzeko prozesuak garatzeko. Ildo beretik jarraituz, ibilbide-orrien bitartez egindako bide praktiko baten arabera eta lehentasunezko esparruen jarraipen estrategikoa eginez, bost helburu nagusi xehatzen ditu 2010. urterako:

- Gobernu elektroniko "inklusiboa", erabiltzen erraza eta herritar guztiei, inor baztertu gabe, mesede egingo diena.

- Eraginkortasunak eta efizientziak benetakoak izan behar dute eta administrazio-zerbitzuen lan-karga eta opakutasuna arindu behar dituzte.

- Oihartzun handiko zerbitzu gakoak ezartzea, kontratazio publiko elektronikorako helburu zehatzak definituz.

- Tresna gakoak sortzea, autentifikazio bidezko sarbide erosoa eta ziurra zabaltzeko, Europa osoko zerbitzu publikoekin operagarria.

- Parte-hartzea eta erabaki demokratikoak hartzeko aukera indartzea, eztabaida ahalbidetuko duten erreminten bitartez, bere bizkortasuna eta herritarren eskubideen ziurtasuna bermatzeko.

ITP berriak, bere zeregin teknologikoen esparruan, gai honi buruzko politika europear aurreratuenekin bat egin eta aitzinatu nahi du.

Aurrekari hauetan oinarrituta, egokitzat jotzen da ezarritako lau estrategia-lerroak indartzea (Azpiegitura Teknologikoak, Administrazio Elektronikoa, Kudeaketaren Hobekuntza eta Antolaketa). Horregatik, 2006-2009 Informatika eta Telekomunikazio Planak definitutako eredu hori hedatu egin behar du egungo sistemen integraziora eta zeharkako zerbitzu partekatuen sustapenera bildurik.

Behar eta aukera berriak etengabe agertzen ari direla-eta (esaterako eragileek behar duten mugikortasuna) ezinbestekoa da gaur egungo arkitekturaren bilakaera. Sailen beharrak eta planteamenduak oso kontuan hartzekoak baitira, 2006-2009 ITP **Sailen planak multzokatuz eta egituratuz** egin da.

Horretarako, Sailen eta Erakunde Autonomoen errealitatea eta premiak aztergai izan dira:

- Lehendakaritza
- Lehendakariordetza
- Ogasuna eta Herri Administrazioa
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (Sare Judiziala barne)
- Herrizaingo Saila (Segurtasun Sailburuordetza barne)
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Osasun Saila
- Kultura Saila
- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila
- Garraio eta Herri Lan Saila
- Nekazaritza eta Arrantza Saila

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE)
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)
- Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)
- Emakumearen Euskal Erakundea (Emakunde)
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (OSALAN)

Halaber:

- Administrazioa Eraberritzeko eta Administrazio Elektronikorako Idazkaritza Nagusia.
- Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza (ITZ)

Egungo Egoeraren Diagnostikoa

Korporazio-estrategia berriek, hala nola aurki egingo den Administrazio Elektronikorako Estrategiaren berrikusteak, gai askori eragingo die, besteak beste "Presentzia Interneten" kon tzeptuaren eboluzioari (berau aztertzeko nahitaezkoa izango da Extranet eta Zerbitzuen Katalogoaren behar hazkorrari errepara tzea), edo Intranet sendo baten eskaera, aldaketaren eta jakintza-ren kudeaketa-beharrei erantzun ahal izateko.

Bestalde, egunez egun funtzionalitateak gehitu egiten direnez, segurtasun-baldintza hobeak eta teknika konplexuagoak behar dira, marko korporatiboan mahaigaineratu ondoren irtenbideak aurkitzeko.

Abangoardian irauteko eta plataforma korporatiboak dakarren mozkin-marjina handitzeko inbertsioa eta etengabeko lana behar dira, baina betekizun hauei erantzute aldera ezinbestekoak dira berrikustea, eboluzioa eta Sailen zein herritarren premiei eta eskakizunei aurrea hartuko dien etengabeko euskarri korporati-boa. Horregatik, halabeharrezkoa da zehaztu den eredua aberas-tea, Sailek eta Erakunde Autonomoek zerbitzu berriak gehituz, eta herritar, enpresa eta Administrazioekiko operagarritasuna sustatzea.

Ezinbestekoa da 2003-2005 ITParen eginkizun guztiak burutzea, bertan hainbat ekimen garrantzitsu garapen-fasean baitzeuden. 2006-2009 aldian pisuzko ekimenak (GIP, IKUS, PLATEA...) aldi berean abiatu ziren. Gaur egun, ekimen horiek baliatu behar dira maila korporatiboko prozesuen aldaketei ekiteko. Lan-ildorik behinena estrategia korporatiboa eta Sailen dinamika hobeto bateratzea da, lankidetza lagunduko duen metodologia egokia zehaztuz eta egituratuz, komunikazioaren eta proiektuen kudea-ketaren mesederako. Era berean, metodologia horrek ahaleginak alferrik egitea baztertu behar du eta Planaren berrikustea eta eguneratzea erraztu. Teknikaren aukerak baliatzeko, behar berriak asetzeko, prozesuen optimizazioa eta kostuetan aurrezkia lortzeko, teknologia-aurrerakuntzak gureganatu eta ustiatu behar dira, hala fakturazio elektronikoaren arloan, nola doku-mentu-kudeaketan eta Informazio eta Komunikazio Teknologie-tako beste esparru batzuetan.

2006-2009 ITPk Eusko Jaurlaritzako Sailek eta Erakunde Autonomoek informatika eta telekomunikazioen arloan dituzten premiak, kezkak eta planteamenduak koordinatzen eta biltzen dituen gunea izan behar du, beti ere estrategia komun bati jarrai-tuz. Horiek horrela, Sailen analisiak alde ahul eta sendo nagusiak sakonki ezagutzeko aukera eman du. Hain zuzen ere, ezagutza honek argitu behar du ahuleziak gainditzeko bidea.

Indarguneak

- Informazio eta Komunikazio Teknologien azpiegiturek bete beharreko zeregina Sail eta Erakunde Autonomo bakoitza-ri agindutako funtzioetarako euskarria ematea da.
- Euskal Administrazioak bereganatuak ditu, dagoeneko, izapidetze elektronikoari euskarria emateko behar diren tresnak. Horrez gainera, Administrazio elektronikorako oinarri egokiak ere badaude (PLATEA, Kontratazio Elektro-nikoa, etab.).
- Informazio eta Komunikazio Teknologiak hobekuntza bultzatzen duten elementu bat dira, bai barne-prozesue-tan bai herritarrei ematen zaizkien zerbitzuan eta arretan. Herritarrek horrelaxe hautematen dituzte.
- Eusko Jaurlaritza zerbitzuetara bideratutako arkitektura (SOA) garatzeko bidean da eta egungo zerbitzua iraunara-ziko eta eguneratuko duela ziurtatzen du, mailakako fun tzionalitate berriak gehituz.
- Herritarrekiko transakzioa eta elkarreragina emendatu egin dira eta Modulu Komun berriak gehitu dira orain arte-ko funtzionalitateen osagarri.
- Zerbitzuen eta tramiten katalogoak lantzen hasi dira.

Hobetzeko arloak

- Sailetako funtzio informatikoaren ezarketa heterogeneoak zailago bihurtzen ditu aldaketaren kudeaketa, jakintzaren kudeaketa eta planifikazioa aurrera eramateko prozesu horizontalak, eta ondorioz Sailen eta Erakunde Autono-moen eragimena eta ebazpen-gaitasuna.
- Balio handiko zerbitzuak eraikitzeko tresna den aldetik, elkarreragingarritasunak aurre egin behar die politikaren eta eskumenen arloetako auziei.
- Beharrezkoa da eredu berriaren euskarriaren antolaketa indartzea, baita bere kudeaketa ere, eskumena duten orga-noen arteko koordinazioa hobetuz eta beren orientabide-ak, planteamenduak eta ekimenak aiseago komunikatuz beste Sail eta Erakunde Autonomoei.

ITP berriak Sail eta Erakunde Autonomo guztien planen batuketa da; hori dela eta, jarduerak eta proiektu teknologikoak koordinatzeko aukera ere bada, **estrategia-lerrokatze korporatibo** bera partekatuz gero.

Ildo beretik jarraituz, esan beharra dago 2006-2009 ITParen emai tzarako funtsezkoa izan dela **Sail eta Erakunde Autonomo bakoitzaren egungo egoera xehetasunez islatzea**, Informazio eta Komunikazio Teknologiei dagokienez. Hori lortzeko, batetik 2003-2005 2005 ITParen itxiera formala egin da, eta bestetik Sail bakoitzaren indarguneak eta ahuleziak aztertu dira, halaber Sailek dituzten aukerak eta mehatxuak.

Ezinbestekoa izan da Sail eta Erakunde Autonomo bakoitzaren aurrekontuen azterketa egitea Informazio eta Komunikazio Teknologiei dagokienez, eta Eusko Jaurlaritzan duen posizio erlatiboa ezagutzea. Sailen eta Erakunde Autonomoen premia teknologikoak ere aztergai izan dira, gaur egungo proiektu aktiboak erregistratuz, ebaluatuz eta beraien jarraipena eginez.

Maila korporatiboan, Informazio eta Komunikazio Teknologien arloan zeharkako eskudantziak dituzten zenbait zuzendaritza sortu ditu Eusko Jaurlaritzak, hala nola Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza (ITZ), Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritza (AEBZ) eta Administrazio Elektronikorako eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza (AEHAZ). Zer esanik ez, hauek ere aztergaiak izan behar dira. Zehazki, zuzendaritza hauek bultzatzen dituzten proiektuak eta zerbitzuak, eta egun indarrean dauden estandar teknologikoak oinarrizko alderdiak dira plangintza estrategikoa eta etorkizunean egingo diren ekintzen plana ezartzeko orduan.


Joera
Teknologikoak

Informazio Teknologietarako Estrategia

Informatika eta Telekomunikazio Planaren plangintza estrategikoa zehaztekotan, bere markoan aintzat hartzekoak eta aplikagarriak izan daitezkeen merkatu-joera teknologikoak aztertu dira. 2003-2005 ITP egin zenez geroztik teknologiak aurrera egin du eta honek, zalantza barik, eragina du hartu beharreko jarraibideen edukian eta orientazioan. Teknologien eboluzioari esker, eragileek eta hornitzaileek eskaintzen dituzten zerbitzuak egunera daitezke eta eguneratzeak Sailen eta Erakunde Autonomoen behar berriei hobeto erantzutea ahalbidetzen du.

Plan berri honek jarraikortasuna eman behar die aurreko ITParen estrategia-lerroei, haiek berrikusiz eta Euskadin Informatikaren eta Telekomunikazioen bilakaera erabakiko duten alderdi gakoak sendotuz. Era berean, eskainitako zerbitzuek **elkarreragingarritasuna eta segurtasuna** bermatzen dituen marko batean txertatu beharko dute, Europan erabakitako Administrazio Elektronikorako i2010 Ekintza Planaren estandarrekin bat etor daitezen. Plan honen xede nagusiak honakoak dira: Administrazio Elektronikotik abantailak azkar lortzea ahalbidetzea pertsonei eta enpresei; ziurtatzea administrazio honek ez duela eragozpen berririk sortzen, elkarreragingarritasunik eza dela eta, Estatuaren barne-merkatuan; eta Administrazio Elektronikoaren onurak Europar Batasun (EB) osora zabaltzea, eskalako ekonomiak sor tzeko aukera emateko.

Ezarritako ereduari PLATEA iritzi zaio (e-Administraziorako Plataforma Teknologikoa) eta zenbait osagai ditu; osagaiok, batera, Administrazio Elektronikoaren zerbitzuak emateko oinarrizko plataforma teknologikoa egiten dute, hots, euskarri teknologiko komuna, herritar eta enpresei zerbitzu telematikoak eskainiko dizkiena irizpide bateratuen arabera normalizatutako aplikazioen bitartez.

Elkarreragingarritasunaren helburuan sakontzearen beharra jakinik, PLATEA plataformaren eboluzioa ere hartu da aintzat, xedea dela bere sistema batzuen erabilera-eremua zabaltzea Euskal Administrazio Publikoen beste sare batzuetara (Euskal Administrazioaren erakundeak, Foru Aldundiak eta Udalerriak). Era horretara, zerbitzu digitaletako plataforma komuna sortuko da eta plataforma honek Estatuko Administrazioaren erakunde-ekiko operagarritasuna ezarriko du. Helburu hau lortzeko, ezinbestekoa izango da Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Sare Korporatiboaren zenbait sistema banatzea, haiek moldatzeko eta orientatzeko estandar orokorragoen erabilerara.

Aztertutako joerak

Taldeen, enpresen eta goberno-organismoen arteko lankidetza eta elkarreragina dira gaur egungo joera gehienen ezaugarri nabarienak. Eusko Jaurlaritzaren eta eragileen arteko elkarreraginaren isla Extranet-ak sortzeko sustapena da. Bertan aplikazioak argitaratzen dira eragileek erraz erabiltzeko moduan, ziurtagiri digitalen edo bestelako mekanismoen bitartez. Internet bidez kontratatzeko, informatzeko edo izapidetze elektronikoa egiteko plataformak gero eta sarriago erabiltzen dira. Horregatik, beharbeharrezkoa da segurtasunaren kudeaketa, ziurtagiri digitalen erabilera edo bestelako mekanismoak bultzatzea. Dokumentu Kudeaketako oraingo erremintek, Espedienteen Kudeaketan txit garrantzitsuak, segurtasun erantsia ematen dute eragiketak egiteko orduan.

Beste joera bat web-baliabideen erabilera monitorizatzeko eta zenbatekoa den jakiteko tresna berriak dira (Webanalysis), administrazioaren zerbitzu telematikoen erabilpen-maila erraz aztertzeko bitartekoak. Open Source soluzioen erabilera ere aipagarria da, eta era berean opensource-software duten Linux-en oinarritutako lan-plataformen homologazioa (Openoffice, adibidez). Plataformak eta jabe-soluzioak batera ibiltzea ahalbidetuko du honek.

Telekomunikazioen eremuan. Aurki izango den TDTen abiaraztea eta UMTS komunikazio mugikorren bultzada bi bide berri izango dira herritarrekin elkarreragiteko eta informazioko eta izapidetze elektronikoko egungo plataformak hobetzeko. Bestalde, Telekomunikazio-operadoreek eskaintzen dituzten zerbitzuen eboluzioa aurreikusten da konmutazio optikoaren teknologien bultzadaz eta Zerbitzuen Sailkapena eta Lehenespenari esker (Cos eta QoS). Zerbitzu hauetaz baliatuz sare konbergenteak eta are transmititzeko uhin-luzerak eskuratu ahal izango dira.

Sektorearen eboluzioaren ikuspegi honen arabera, 2006-2009 Informatika eta Telekomunikazio Plana egiteko kontuan hartu diren joerek Planean zehaztutako lau estrategia-lerroen finkapena sustatuko dute: Azpiegitura Teknologikoak, Administrazio Elektronikoa, Barne Kudeaketaren Hobekuntza eta Antolaketa. Orobat, egungo Informazio Sistemak gehiago bateratzea ekarriko duten formulak aurkitu nahi dira, aldi berean Eusko Jauirlaritzak partekatzen dituen Zeharkako Zerbitzuak indartzen ahaleginduz. Oraingo estrategia-lerroak eta Prozesuetan, (Kudeaketa), Antolaketan eta Teknologian (bereziki azpiegiturak) oinarritutako sailkatze-irizpideak kontuan hartuz, 2006-2009 ITParen jarduketa-ardatzak horrela birzehaztu dira:



Laburbilduz, Plan berriak aurrekoaren ildo beretik jarraitzen du. Bere alderdi gakoak, berriz, indartu egin dira aurreko planetan metatutako esperientziaz eta teknologiaren aurrerabideak eskaintzen dituen aukera berriez.

Estrategia Plana

2006-2006 ITPk jasotzen dituen ekimenak **Sailen eta Erakunde Autonomoen eskakizunetatik** eratorri dira, baita ITZ eta EJIEaren implementazio, koordinazio eta dinamizatzaile lanetik ere. Informazio Sistemak Administrazioaren eraginkortasuna hobetzeko oinarrizko tresna direla ulertzea eta kontuan hartzea da Plan honen abiapuntua, nahiz barneko funtzionamenduan (antolaketan) nahiz Administrazioa elkarreraginean ari den eragileei emandako zerbitzuetan.

Orain arteko ildo beretik jarraituz, aurreko Planaren **lan-estrategia berberak** erabili dira, gaur egungo premietara egokitutako jarduketa-ardatz berriak identifikatu badira ere. 2003-2005 ITPan bezalaxe, burutzeko orduan Planaren jarraibideak lau estrategia-lerrotan egituratzen diren proiektu/ekimenetan gauzatzen dira eta jarduketa-ardatzetan sailkatzen dira.

Proiektuak Sailetako arloetan garatzearen alde egiten du Planak, **proiektu-pilotu gisara, geroago esportatzeko eta erreplikatzeko interesgarriak izan litezkeelako** beste eremu korporatibo batzuetan. Horrela, baliabideak eta eginahalak optimizatu egingo dira eta gainjartzeak eta lan paraleloak ekidingo, berdintsuak diren arazoei irtenbidea emateko orduan. Zentzu honetan, proiektuak eta ekimenak **koordinatu, jarraitu eta kudeatzeko prozedura eta tresna egokiak** definitzea elkarlan-dinamika bat ezartzeko aukera bat bezala planteatu beharra dago.

Indarraldian Plana eguneratu egin beharko da bere edukiak etengabe berrikusi ahal izateko eta bere mihiztadura eta bat-etortzea ziurtatzeko Sailen lanen planteamenduekin, premia berriekin, teknologiaren eboluzioarekin eta estrategia eta jarraibide korporatiboen lerrokatzearekin, hala nola Administrazio eta Gobernu Elektronikorako Plan Estrategikoarekin (AGEPE).

Estrategia-lerroak eta Jarduketa-ardatzak

ITP berria, hortaz, estrategia sakontzean zentratzen da, horretarako herritarren, eragileen eta gizarte-taldeen arteko elkarreragina eta elkarreragingarritasuna sustatuz, gizartearekiko Jaurlaritzaren hartu-eman zuzenagoak eta eraginkorragoak sendotuz. Bestetik, ezarritako eredua bultzatzeko asmoa ere badu, dauden Informazio Sistemak hobeto bateratuta egon daitezen. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak partekatzen dituen zeharkako zerbitzuak sendotu nahi dira eta estrategia korporatiboaren artikulazioa sustatu koordinazioa, euskarriaren antolaketa eta jarraipen eta komunikazio tresnak hobetuz.

2003-2005 Planean zehaztutako **lau estrategia-lerroak** finkatzea sustatzen duten joerak hartu dira aintzat Informatika eta Telekomunikazio Plan berri honetan: Azpiegitura Teknologikoak, Administrazio Elektronikoa, Barne Kudeaketaren Hobekuntza eta Antolaketa. Proposamen hauen arabera eta Prozesuetan (Kudeaketa), Antolaketan eta Teknologian (bereziki azpiegiturak) oinarritutako saikapen-irizpideak aintzat harturik, **2006-2009 Informatika eta Telekomunikazio Planaren jarduketa-ardatzak** honelaxe zehaztu dira:

Estrategia Ildoa	Jarduketa Ardatzak
Azpiegitura Teknologikoak	Informazio Sistemen Integrazioa Modulu Komunak Informazio Teknologiak (Sistemako Hardware / Software) Komunikazio Teknologiak Segurtasun Plataforma Kanal berrien zabaltzea
Administrazio Elektronikoa	Presentzia Interneten Zerbitzu Telematikoak Elkarreragingarritasuna Harreman Ereduak
Kudeaketaren Hobekuntza	Espedienteen Kudeaketa Kontabilitatea (IKUS) Langileen Kudeaketa Bateratua (LKB) Dokumentu Kudeaketa G2E Segurtasunaren Kudeaketa
Antolaketa	Trebakuntza eta Jakintzaren Kudeaketa IKTen Kudeaketa Estrategikoa Berrikuntza eta aukera berrien identifikazioa Aldaketaren Kudeaketa

Azpiegitura teknologikoak

Azpiegituren teknologikoen eremuan burutu beharreko ekintzak bideratzeko orduan, Informazio eta Komunikazio Teknologietan Euskal Administrazioa bere Sailen eta Erakunde Autonomoen plataforma teknologiko komun eta partekatuarekin bat etorriz egituratzea da helburua, komunikazio eta informatika zerbitzuak emateko eredu batekin batera. Horrela, zerbitzu eta Informazio Sistemen ostatze-prozesua erraztu egingo zaie Sail eta Erakunde Autonomo hauei eta partaideek eskatzen duten funtzionalitatea bete ahal izango da nonahikotasun, gardentasun eta erabilerraztasun irizpideak baliatuz.

Estrategia-lerro honen helburua, beraz, epe labur eta ertainera behar diren ekintza guztiak era sistematikoan eskura edukitzea da, eta hartara **antolaketa heldua eta eraginkorra prest eduki tzea** 2006-2009 ITParen ezarketa amaitu ondoren, Sailek eta Erakunde Autonomoek teknologia berriak erraz erabil ditzaten. Euskal Administrazioaren beharretara egokitutako zerbitzu-katalogo egoki eta moldagarri bat ere edukiko duen antolaketa izango da, ITZ/EIJIE binomioak datozen urteetan izango duen zereginari ere moldatuko zaiona.

Beren helburuak eta aktibitateak baldintzatzen dituzten zenbait elementu direla eta, Azpiegitura Teknologikoek eraldaketa sakona izan dute denbora gutxian. Aipagarria da teknologia hauen parte-hartzea ataza, izapidetze eta zerbitzu publikoak emateko jardute guztietan, halaber paperaren ordez elkarreragin elektronikoak gehiago erabiltzea egunetik egunera. Informazio teknologiek gero eta zeregin garrantzitsuagoa dute, are herritarrei aurrez aurre egiten zaien arretan ere.

Beste alde batetik, azpimarragarria da Telekomunikazio Teknologiekin Informazio Teknologiek edo Sistemek izan duten elkarganatzea, baita elkarreragiteko kanal berrien integrazioa ere (Web, sakelako telefonoak, e-mail...). Interneten garapena oso aipatzekoa da, erakundeen arkitektura teknologikoan beste aktibo bat bezala txertatu baita gizarte osoari atzipen-kanal mugagabe bat eskaintzeko. Horrez gain, kontuan hartu behar da teknologia berriek ekar dezaketen gaitasuna edukien digitalizazioaren bitartez lanak sinplifikatzeko eta kalitatea hobetzeko. Prozedurak sinplikatzeko eta zerbitzuak hobetzeko irizpideekin batera, estrategia-lerro honi bultzada ematea da Informatika eta Telekomunikazio Euskal Planaren gakoetako bat.

Informazioaren Gizartea garatzeko beste zutabe baitezpadako eta ezinbesteko bat honakoa da: Europako politika publikoak laguntzea digitalizazioa sustatzeko eta Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilera trinkoa izan dadin Herri Administrazioetan.

Azpiegitura Teknologikoek administrazioen balio-kateari euskarria eman behar diote, zerbitzuak emateko administrazioek erabiltzen dituzten antolaketa-unitateetan. Oinarrizko plataforma dira kudeaketa ekonomikoari eusteko eta irtenbideak aurkitzeko administrazio-espedienteen izapidetzea arinagoa izan dadin. Langile publiko guztiei posta elektronikoa erabiltzeko aukera ere eman behar diete azpiegitura hauek, web korporatibo bat eskaini eta, aldi berean, administrazio-organoen bulegoetako sare guztiak linean jarri etengabe.

Gaingiroki, Azpiegitura Teknologikoek oinarrizko hiru jarduerari eutsi behar diete: —**Hornitze-zerbitzuak**— azpiegitura eta operatiboaren euskarri-zerbitzuak hornitzea, zerbitzariaren eta sareen mantentze-lan eta funtzionamendutik, aplikazioen mantentzelanetara, —**Hobekuntza-zerbitzuak**— zerbitzu-ematearen aldaketa sustatzeko eta euskarria emateko; horretarako, antolaketa-unitateek zentzuz erabili beharko dituzte informazio eta komunikazio teknologiak —eta **Eraldaketari Euskarria** ematea— estrategia eta politika publikoetan erabiliko diren teknologia berriak baliatzeko orduan berritzea.

Gaur egun, besteak beste Internetek, Web teknologiek eta mugikorrek eragin duten bultzadaren ondorioz, elkarganatze teknologikoa erabatekoa izango da aurki eta, horri esker, edozein ingurunetan eta edozein kanalen bitartez erabil daitezke jadanik informazio sistemen irtenbideak. Aukera teknologiko hauek guztiak direla bide, Azpiegitura Teknologikoak kanpoko antolaketa-

unitate bakarrerantz orientatzea bultzatu da eta honek eragiketak bitarteko telematikoez egitea ahlbidetu dio Herri Administrazioari, eragileekiko sare komun baten markoaren barruan. Modu horretan, zabaltze-prozesu berri bat hasten da harreman telematikoak emateko, baitan hartzen dituen eremu organikoa gainditzen baitute harremanok eta Administrazio osoan zehar hedatzen baitira elkarreraginean diren herritar eta beste eragile batzuenganaino heltzeko.

Zerbitzuen eta sistemen zabaltze eta elkarreragingarritasunaren ondorioz, teknologien estrategien foko-desplazamendua antzematen da, ez soilik izapidetze-jardueren euskarritze edo mekanizatzerantz, baizik eta eraginkortasuna hobetzeari begira dagoen ikuspegi baterantz, herritar, enpresa eta administrazioekiko harremanetara ahaleginak bideratuz eta zerbitzua zein eraginkortasuna emateko ikuskeraren beharra gehituz. Ageri-agerikoa da erakundeen arteko elkarreragingarritasuna errazteko eta estandarizatzeko premia, eta halaber zerbitzu-emateetan eskuhartze duten gizarte-eragileen artekoa. Gainera, zeharkako eraginkortasuna ere bada beharrezkoa, eskalako ekonomien nahiz estandarizazio teknikoaren bidez, eragileen arteko lankidetzaz administrazio-sinplifikazioa eta zerbitzuaren hobekuntza gehitu daitezkeelako, izapidetzearen zailtasuna murriztuz, bere urratsak edo kudeatutako informazioa digitalizatuz, eta hainbat izapidetze bateratuz gizartearentzat balio handiagoa duten zerbitzuetara.

Ekimenak eta proiektuak

Azpiegituren estrategia-ildoen barruan Eusko Jaurlaritza bezalako **Administrazio moderno baten aplikazio eta jarduera guztiei euskarria** emateko balio duten ekimen guztiak sartzen dira, azpiegitura eta plataforma bateratuak lortze aldera, plataforma teknologiko komun eta partekatu batez hornitzeko. Horretarako, ondorego jarduketa-ardatzak dira azpimarragarrienak.

Eusko Jaurlaritzako Administrazio Sare Korporatiboaren (EJASK) teknologia eguneratzera bideratutako ekimen guztiak; horrez gainera, berau **zerbitzu-sare bihurtzea helburu dutenak** eta mugikortasunarekin eta nonahiko sarbidearekin zerikusia dutenak (Bluetooth, Wi-Fi, VPN, RAS, etab.). Out-of-band Kudeaketa Sarea ere jorratzen da, maila logikoan nahiz fisikoan EJASKtik bananduta, backup-ak gordetzeko sistema jausi edo hutsegite kritikoa gertatuz gero.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuen eta azpiegituren (Firewall-ak, Enkriptatuak, PKI/Ziurtagiri digitalak, DBLO Auditoriak), **segurtasuna gehitzea** aurreikusten da, kudeaketa bananduta eta paralelo baten bitartez eta Komunikazio Sarearen laguntzaz, datuak babesteko aukerako bulego baten definizioan eta hornikuntzan lan eginez eta dagokion Kontingentzia Plana idatziz. **Extranetak eta Puntu Neutroen erabilpena eta hobekun-tza** sustatzeko ekimenak ere honetan sartzen dira, beste eragile eta erakunde batzuekiko elkarreragingarritasuna hobetzeko.

Era berean, sistemako **hardware eta software plataformak** ere jorratuko dira, zeharka erabiltzen diren aplikazio korporatiboei euskarria emateko moduan. Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzako zerbitzu eta azpiegituren segurtasun-maila hobetzeko jarduerak eta ekimenak landuko dira, software librearen erabilera bultzatuz. Komunikazioen hobekuntzaz batera, Administrazioak zerbitzu berriez hornitzea izango du, hala nola IP/Voip Telefonia, Bideokonferentzia, Streaming, ECDN edukien banaketa, etab.



Aurreko Planaren aldean, aldaketa bat dago estrategia-ildo honen jarduketa-ardatzetan, beharretara egokiro moldatu guran eta euskal Administrazio Elektronikoaren oinarria diren azpiegiturak modernizatzeko asmoz. Horiek horrela, nahiz eta telekomunikazioen eta segurtasun-plataformaren ardatzak dauden-daudenetan utziko diren, komenigarritzat jotzen da Informazio Sistemen Arkitekturaren ardatza xehatzea eta bere ordez Informazio Teknologien Azpiegitura eta Informazio Sistema Bateratuak jartzea, eta Modulu Komun zein kanal berriak zabaltzea.

Estrategia-ildoa honen helburua, hortaz, Sailek eta Erakunde Autonomoek jarraitu beharreko bidea zedarritzea da, Azpiegitura eta Plataforma integratuak lor daitezen Planean zehaztutako epean. ITZk burutuko ditu azpiegituren arloko jarduera guztiak, EIJIEaren lankidetzaz.

Telekomunikazioen Azpiegitura delako ardatzaren helmugak hurrengoak dira: Eusko Jaurlaritzaren ubikazioekin Banda Zabaleko konektibitateaz hornitzea, datu eta ahots zerbitzuak azpiegitura berean integratzea, Eusko Jaurlaritzako Administrazio Sare Korporatiboaren eskalagarritasuna berma-tzea, baita komunikazioen erabilgarritasun handia ziurtatzea ere, eta azkenik administrazioaren datuetara iristeko erabiltzaileen nonahiko sarbidea bermatzea (Konektibitate Eredua).

Beste aldetik, **Informazio Teknologien Azpiegitura**ren jarduketa-ardatzak (hardware eta sistemako software) honako helburuak ditu: Eusko Jaurlaritzako Administrazio Elektronikoaren eta aplikazio korporatiboen zerbitzuak emateko performantzia handiko plataforma eraginkor bat ezartzea, aplikazio kritikoetarako azpiegitura eskalagarriak eta erabilgarritasun handikoak lortzea, zerbitzuak eta ekipamenduak birtualizatzeko teknologiak hartuz, eta informazio sistemen arkitektura aproposa definitzea, zehaztutako helburu estrategikoak abiarazteko. Gainera, sektore publikoaren garapen-estandarrak eta praktika onak sustatu nahi dira, baite opensource-estandarrak ere, eta halaber gastuen arrazoizko erabilera eta eskalako ekonomien sorrera, Eusko Jaurlaritzaren barruan azpiegiturak eta plataformak zeharka erabiltzea indartuz.

Kanal berriak zabaltzeko joera bere eginez, Eusko Jaurlaritza euskarri-azpiegitura batez hornituko da bere zerbitzuetara nonahiko sarbidea emateko; era berean, Jaurlaritzako funtzionarioek sistema korporatibo eta Sailen sistemetara iristeko urruneko sarbide-plataforma ziurra edukiko dute (RAS, PDA, Mugikorra, Bluetooth, etab.). Horrez gain, herritarrei sarrera-gune publikoak eskainiko dizkie informazio, albiste eta izapidetzeetara iristeko. Eusko Jaurlaritza erakundearen presentzia hobetu ere egingo da Lurreko Telebista Digitala bezalako kanal berritzaileei esker eta web-kanalean zein herritar eta enpresei laguntzeko funtzionalitateei esker.

Informazio Sistemen Integrazioa, bestetik, informazioak sistema anitzen artean sendo dirauela ziurtatzeko bermea izango da, eta era berean BPM teknika duten Prozesuak integratzeko bidea

Operazio ereduaren analisisa



(negozio-prozesuan eta aplikazio korporatiboen lerrokatzea). Hornitzaileetatik banatutako Plataforma Independienteak sortzekotan, aplikazioen negozio-arauak erauzi egingo dira eta Zerbitzuak Integratzeko middleware geruzan inplementatuko dira. Hartara, negozio-aplikazioa aldatu nahi izanez gero, ez da beharrezkoa izango bere arauak berriro inplementatzea. Sailetarako sarrera-gune bakarra ezartzea da beste helburu bat. Horretarako, sailen aplikazioetarantz ESB arkitekturako interfaze bakarra inplementatuko da (back-end). Azkenik, elkarreragingarritasunerako zerbitzuak Jaso eta Euskalsarea proiektuei atxikitako azpiegituretara hedatuko dira.

Modulu komunak ondorengo helburuak hauek lortzeko erremintak dira: azpiegiturak, zerbitzuak eta Sail eta Erakunde Autonomoekin partekatutako aplikazioen ezarketa Eusko Jaurlaritzan (adibidez GIS korporatiboa), zerbitzuen integrazioa bermatzea, ITZ/EJIE zerbitzuen katalogoa eguneratzea, gastuen arrazoizko erabileraren alde egitea eta eskalako ekonomiak bul-tzatzea, Eusko Jaurlaritzaren barruan azpiegiturak eta plataformak zeharka erabiltzea indartuz. Modulu komunei esker, negozio-prozesuak optimizatuko dira, administrazioen arteko elkareragingarritasunari euskarria emango zaio, eragileen eta administrazioaren langileen arteko elkarlana sustatuko da eta, beren funtzionalitateak zabalduz, gaur egungo zerbitzuak eboluzionatuko dira.

Eta azkenik, **Segurtasun Plataforma**ren jarduketa-ardatzak honako xede hauek erdietsi beharko ditu: kostuak murriztea, administrazioa sinplifikatzea, plataforma orokorraren ahuleziak ahal bezinbeste murriztea, segurtasun-zerbitzu kritikoetan hutsegiteak aurreikustea (erasoek, iruzurrek eta abarrekoek eragiten dituzten galerak gutxitzeko), auzitegiko analisiak eta auditoria-prozesuak erraztea eta kanpoalderako sarean segurtasun-neurriak ipintzea.

Administrazio Elektronikoa

Modernizaziorako eta Administrazio Elektronikorako Idazkaritza Nagusiak, bere estrategian, bost helburu nagusi jarri ditu: izapidetze-eredutik zerbitzu elektronikoetan oinarritutako harremaneredura igarotzea; estrategia-ildo honen ekimenak Administrazio eta Gobernu Elektronikorako Plan Estrategikoaren ekimenekin bateratzea; Administrazioaren eremu publikoetan herritarren parte-hartzea eta Jaurlaritzarekiko harremanak suspertzea tresna telematikoen bitartez; gertaeretara bideratutako zerbitzu-arkitektura baten eraikuntza bizkortzea; eta Interneten egungoa baina askozaz nabariagoa izango den presentzia bultzatzea, euskal herritar guztiengana iristeko.

Helburuotan oinarria harturik, beraiek garatzeko jarduketa-ardatzak zehazten dira, asmoa dela **zerbitzu elektronikoak lortzeko Sail eta Erakunde Autonomoek jarraitu behar dituzten estandarrez, proiektu komunez eta azpiegitura teknologikoaz hornitzea**, Planean zehaztutako epean. Administrazio Elektronikoaren eremuko ekintzak arlo honetako organo eskudunekin koordinatuko dira.

Ekimenak eta Proiektuak

Adierazitako helburuak lortze aldera, nahitaezkoa da **Interneten Presentzia** bultzatzea, atarien sarea hobetuz zerbitzu publikoen eskaintza eta eskaera egokiro uztartzea ahalbidetzeko, Interneteko zerbitzuen estaldura ona sortuz euskal Administrazioak herritar guztiengana iristeko modua izan dezan. Aldi berean, aplikazioen eta atzipen-kanalen mugikortasunaren bultzadaz, langileek Administrazioarekin komunikatzean baliabide eraginkorra eta proaktiboa erabiltzeko aukera izango dute.

Zerbitzu telematikoak ere indartuko dira, Administrazio Elektronikoaren azpiegitura berriztatzailea eta eraginkorra izango denez gero. Sailen zerbitzu elektronikoak sortu eta banatzeko aukera emango du azpiegitura honek. Herritarrek kanal anitzetik eskatu ahal izango dituzte e-zerbitzuak eta Sailek inplementatzen diren zerbitzuak berriro baliatuko dituzte, barne kudeaketa osa-tzeaz gainera, zerbitzu telematikoen garapena arkitektura bidezko zerbitzura bideratuta baitago. Bestalde, intentzioetan oinarritutako e-izapidetze berriarekin, Administraziotik zer behar duen baino ez du jakin beharko erabiltzaileak, Administrazioak gidatuko baitu hura izapidetze osoan zehar, helburua lortu arte. Azpiegitura hau egokitzeko gai izatea ere aurreikusten da, gainontzeko euskal administrazioek erabili ahal izan dezaten eta horrela elkarreragingarritasuna erraztu dadin.

Izan ere, jarduketa-eremu honek bere baitan hartzen duen beste erronketako bat **elkarreragingarritasuna** da. Berau definitzeko, esan daiteke elkarreragingarritasuna sistemen eta sistemak darabiltzaten administrazio-jardueren gaitasuna dela datuak trukatzeko eta informazioa eta jakintza banatzeko. Elkarreragingarritasunak hiru dimentsio ditu: **eratzailea** —administrazio-prozesuen eta barneko eraketa-egituren orkrestazioa informazio-arkitekturak eta helburuak lerrokatzeko—, **semantikoa** —trukean diren edukien eta objektuen esangura zehatza bermatzen du ahalbidetzeko informazioa automatikoki interpretatu eta kanpo-aplikazioek berriro erabiltzeko moduan izatea— eta **teknikoa** —informazio-sistemen elkarloturarako alderdi teknikoak hartzen ditu aintzat, interfaze irekiak, datu-formatuak eta protokoloak

Zerbitzuak garatzeko eredua



Elkarreragingarritasuna Kontzeptua eta bere mailak



erabilita, datuak aurkeztu, bildu, trukatu, prozesatu eta garraiatzeko—.

Elkarreragingarritasunaren abantailak eraginkortasuna (Kostua), azkartasuna (Denbora) eta zerbitzu hobea (Kalitatea) dira. Hemendik hainbat aukera on datozkio euskal Administrazioari:

- **Prozesuen automatizazioa:** Kanal elektronikoak erabiltzeak denbora aurrezten du administrazio-espedienteak izapidetzean.
- **Zerbitzu berrien garapena:** Administrazio Elektronikoaz harreman-eredu berritzaileak gara daitezke-eta erraztu egiten da herritarren beharren araberako tratamendu pertsonalizatua.
- **Zero Ziurtagiria:** Prozeduren sinplifikazioari esker, erakunde publikoek jadanik ezagutzen dituzten datuak ez zaizkio berriro galdatuko herritarrari.
- **Berrerabiltzea:** Estandar irekietan oinarritutako arkitektura teknologikoen garapenak osagaiak sortzea ahalbidetzen du, eta halaber modulu komunak berriro erabiltzea.
- **Funtzio publikoaren ekoizgarritasuna:** Tresna teknologikoen erabilerak eraginkortasun handiagoz lan egitea ahalbidetzen du eta horrela balio handiagoko jarduerak burutzeko denbora lortzen da.

Honetatik **Harreman Eredu** berriak eratortzen dira, adibidez e-Partaidetza. Funtzionamendu demokratikoaren alderdi batzuk hobetze aldera Informazio eta Komunikazio Teknologiak erabiltzea da politika-eredu honen helburua. Honek bide ematen du gizarteak zuzenki parte har dezan erabakitzeko orduan eta arlo publikoan esku-hartzea izan dezan. Hauteskudeen arteko aldietan herritarren eta gobernuaren arteko harremanak sustatzeko teknologiak erabiltzea da e-Partaidetza. Hartara, teknologiaren erabilerari esker (txatak arduradunekin, sms-ak, posta elektronikoak, eztabaidak, blog-ak, etab.) gizartearen konpromisoa susta tzen da erabaki kolektiboak hartzeko prozesuan. Herritarrekiko Harremana, Herritarraren Txartelaren bitartez, modurik onenetakoa du Administrazioak herritarrarekin erlazionatzeko ziurtagiri

digitalak lortuz funtzionatzen duten txartel digitalen bidez. Herritarra hurbiltzeko asmoz, kontsultatzeko eta iritzia emateko kanal anitzen erabilera sustatzen da eta autentifikazio-txartelez baliatzea ezartzen da partaidetza eta elkarreragin hobeak lortzeko. Zentzu honetan, ezinbestekoa da NAN elektroniko berriaren administrazio-egokitzapena neurtzea, Sinadura Elektronikoaren proiektua bultzatuz (AGEPEari atxikita), sinadura digitala eta autentifikazio-mekanismo osagarriak bitarteko.



Aurreko Planaren aldean, aldaketa bat dago estrategia-ildo honen jarduketa-ardatzetan, euskal Administrazio Elektronikoari zerbitzu hobea eskaini nahian. Administrazio Elektronikoaren Plataformaren eta Modulu Komunen aurreko ardatzak azpiegitura teknologikoen estrategia-ildoan integratzen ziren. Oraingo Zerbitzuen ardatza, aldiz, lau ardatzetan xehatzen da —Presentzia Interneten, Zerbitzu telematikoak, Elkarreragingarritasuna eta Harreman Ereduak—. Estrategia-ildo honen jarduketa-ardatzen eraketa berriaz, herritarren beharrei aurrea hartzea ahalbidetuko duen Administrazio Elektronikoaren eredu aitzinatura aldatu nahi izan du Eusko Jaurlaritzak.

Eusko Jaurlaritzan Administrazio Elektronikoa hobetzeko aukerek edo proiektuek (2006-2009 Informatika eta Telekomunikazio Planaren funtsezko elementuak) estrategia-ardatz honetan dute isla, AGEPEn zehaztutako helburuetan sartzen den ardatza.

Kudeaketaren Hobekuntza

Kudeaketa hobetzeko estrategia-ildoaren helbururik behinenak hauexek dira: egungo sistemen ezinbesteko integrazioa eta zeharkako zerbitzu partekatuen sustapena. Helburu estrategiko hau zenbait jarduketa-ardatzetan artikulatzen da. Ardatzok xede zehaztuagoak dituzte Informazio eta Telekomunikazio Teknologien arloan.

Asmo handiko jarduketa-ardatzak finkatu dira, baina errealistak aldi berean, beraien xedea dela **barne-kudeaketa hobetzea egungo Informazio Sistemen integrazioa bultzatuz eta Eusko Jaurlaritzako Sailek zein Erakunde Autonomoek partekatzen dituzten Zeharkako Zerbitzuak indartuz.**

Ekimenak eta Proiektuak

Ardatz bakoitzean ekimenak eta proiektuak definitu dira Sailen jardueren helburuak zehatz-mehatz adierazteko. Zentzu honetan, **antolaketaren eraginkortasuna bultzatzea** izango da ardura, barnekoa zein kanpokoa, zerbitzuaren efizientzia eta kalitatea handitzeko prozesuen hobekuntzaz eta automatizazioaz, administrazio-prozesu tronkal komunak identifikatuz, datuen babesa eta pribatutasuna era egokian bermatuz, kudeaketa-adierazle gakoak definituz (zeinek sistema-eredu berriaren ibilbide-orria burutzean monitorizazio jarraia ahalbidetuko baitute), eta estandar teknologikoen eboluzioaz baliatuz.

Informazio eta Komunikazio Teknologien ikuspegitik, **administrazioaren funtzionamendurako gakoak diren sistemetan lan egitea da asmoa** (kudeaketa ekonomikoa, langileena, administrazio-espedienteena, dokumentuena, segurtasunarena eta langileentzako zerbitzuena); horrela prozesu guztiek batera egingo dute aurrera. Nolanahi ere, administrazio digital sendoa garatu ahal izateko, Dokumentu Kudeaketa eta bera ebazteko **Fitxategi elektronikoa** oinarrizko osagaiak dira. Bien dimentsio korporatiboa zalantza gabea bide da, nahiz eta maila logikoan arduradunak Sailak diren. Balio handieneko zerbitzuetan lan egitea izan

behar dute Sailek eta, horretarako, dokumentu digitalen euskarriaren azpiegitura eta artxibatzerako igarotze gardenak behar dira. Honen barnean sartzen da era elektronikoan sinatutako dokumentuak artxibatu beharra, egunetik egunera zabaltzen doana, ziurtatzeko denboran ez dutela baliozkotasunik galduko.

Aurreko Planaren aldean, aldaketa txiki bat dago estrategia-ildo honen jarduketa-ardatzetan. Zehazki, Espedienteen Kudeaketaren ardatzak lan-fluxuen motorrak lantzen ditu, baita beste proiektu batzuekiko harremanak ere, Azpiegitura Teknologikoak eraginkortasunez erabiltzea sustatzeko espedienteen kudeaketa egitean. Era honetan, herritar zein enpresa jakin baten ikuspegi bateratua ematen da, Espedienteen Kudeaketa integratu egiten da Dokumentu Kudeaketarekin eta PLATEArekin, eta azpiegitura optimizatzen duten izapidetze berriak garatzea errazteko tresnak eskaintzen dira. Bien bitartean, Dokumentu Kudeaketa jarduketa-ardatz bereiztu gisara nabarmentzen da bere garrantzi teknologiko eta zeharkakotasunagatik, denboraren erdia erabili ohi baitute administrazio publikoek informazioaren prozesuari lotutako atazetan. Ataza hauek, hortaz, eguneroko lanaren atal handi bat dira eta gainontzeko prozesuen oinarria. Dokumentuak kudeatzeko, azpiegitura bakar eta estandarrak izan behar du Sailen ekimenen euskarria. Horretarako, operazio-prozedura egokiak jarri behar dira.

Kontabilitatearen eremuan (IKUS), prozesuen ingeniaritza berriro lantzearen eta kontabilitate-kudeaketaren teknikaren modernizazioaren alde egiten da, IKUS sistemaren eboluziorako aukera berriak bilatuz, Sailen arteko prozesuak optimizatuz eta adierazleak eta aginte-panelak hobetuz. Bestalde, langile-kudeaketa kolektibora eta funtzionalitate berrietara zabaltzekotan **Langileen Kudeaketa Bateratua** erabiliko da. Kudeaketa honek kontrol zentrala edukiko du, kudeaketaren prozesuak automatizatu eta informazioa ustiatzeko tresna hobeak eskainiko ditu, eta Internet/Intranet bidezko enplegu-zerbitzuak emango ditu. **Enplegatuarentzako Zerbitzuei** dagokienez, teknologia berriez baliatuz Sailek eta Erakunde Autonomoek laguntzaile eta enplegatuei ematen dizkieten zerbitzuak kudeatu nahi dira, baita gainontzeko sistemen integrazioan aitzineratu ere. Horrela, batetik, Intraneten integrazioan eboluzionatuko da eta, bestetik, kolektibo eta premia berriak jasateko tresna aurreratuagoak eskuratuko dira. Azkenik, **Segurtasunaren Kudeaketa** aipatu behar da. Arlo honetan, ezinbestekoa izango da merkatuko estandarretara moldatzea segurtasun korporatiboaren politikari jarraiki eta behar diren kontrolak ezarriz sistemaren kudeaketa zuzena izan dadin.

Aurreko Planaren aldean estrategia-ildo honen jarduketa-ardatzetan dauden aldaketak euskal Administrazio Elektronikoari zerbitzu hobea eskaini nahian planteatzen dira. Horrela, Espedienteen Kudeaketa, Aurrekontuen Kontabilitatea (IKUS) eta Langileen Kudeaketa Integratua (LKI) ardatzek dauden-daudenetan iraungo dute. Beste hirurak, ordea, ordezkatu egingo dira eta beren lekuan honakoak jarriko: Dokumentu Kudeaketa, Segurtasunaren Kudeaketa eta Langileentzako Zerbitzuak (G2E). Estrate-



gia-ildo honen jarduketa-ardatzen ordezkapen honekin, etorkizuneko beharrei aurrea hartzea ahalbidetuko duen Informazio sistemen eredu aitzinatura aldatu nahi izan du Eusko Jaurlaritzak.

Antolaketa

Informazio eta Komunikazio Teknologien antolaketa-ereduaren gaineko hausnarketa orokorra egin beharra dago Plan berri honen markoan, 2006-2009 ITP burutzen lagunduko duten osagai guztiek nahi den bultzada lortzeko funtsezko elementuak baitira teknologia hauek. Horretarako, aurreko Planen eboluzioa aztertu da eta, horren ondorioz, estrategia-ildo honen barruko ekimenen bilakaera argi azaltzea lortu da. Irudi honek Eusko Jaurlaritzaren beharretara ondoen egokitzen den ikuspegi berri bat zehaztuko du. Informazio eta Komunikazio Teknologien Kudeaketaren estrategia era egokian garatuko bada, eraketa, partaideak, ekin-tzak, zereginak, jarraipen-mekanismoak eta abar argiro definituko dituen kudeaketa-eredutik abiatu beharra dago. Beraz, Antolaketaren estrategia-ildoak **funtzio informatikoa garatzea ahalbidetuko duten eraketa eta definizio mekanismo guztiak** jasoko ditu.

Antolaketaren barruan, zenbait ardatz identifika daitezke, gaur egun euskal Administrazioak dituen premiei erantzuteko jarraitzekoak: **Trebakuntza eta Jakintzaren Kudeaketa, Informazio eta Komunikazio Teknologien Kudeaketa Estrategikoa, Berrikuntza eta Aukera Berrien Identifikazioa eta Aldaketaren Kudeaketa.** Aipatu ardatz hauek Administraziorako euskarria izan behar dute zerbitzuetara bideratzeko transizioan. Gainera, Administrazioa modernizatzeko ekimenen komunikazioa eta hedapena bultzatu behar dituzte, barnekoa zein kanpokoa.

Era berean, teknologia berrien funtzio egokiak duen dimentsioa

detektatu behar dute (zereginak eta ardurak) zuzenki asebetetzeko Sail bakoitzaren eta Eusko Jaurlaritza osoaren behar teknologikoak. Area teknologikoetako langileen komunikazio-mekanismoen bidez, proiektuak efizientzia eta eraginkortasun handiagoz burutu daitezela lortu nahi da; halaber, abaian jartzen den proiektu bakoitzaren aldaketaren kudeaketa sustatzekotan, trebakuntza eta komunikazio-plana beharko dira, proiektua ezartzeko eta arriskuak murrizteko ahal bezainbeste.

Funtzio teknologikoaren lana erakundeen balio-kateari euskarria ematea da; katebegi nagusia da: kanpoko zerbitzu-hornitzaileetatik antolaketa-unitateetara doan harremana berak kontratatu eta kudeatzen du (Sailak eta Erakunde autonomoak). Antolaketari laguntza ematea ahalbidetzen du honek. Hainbat arlotan du esku-hartzea: Informazio Teknologien eta Sistemen gaitasunei buruzko ikuskeran, baita prozesuetan duten eraginean ere; antolaketari zerbitzua ematen dioten Informazio Teknologien arkitekturen eraikuntzan eta operazioan; baliabide teknologikoen dimentsioetan; eta estrategia korporatiboarekin bat datozen inbertsioen kudeaketan. Honako hauek dira bere zeregin nagusiak: **Hornitze-zerbitzua** —azpiegitura eta operatiboaren euskarri-zerbitzuak hornitzea, zerbitzariaren eta sareen mantentze-lan eta funtzionamendutik, aplikazioen mantentze-lanetara—, **Hobekuntza-zerbitzuak** —zerbitzu-ematearen aldaketa sustatzea eta euskarria ematea; horretarako, antolaketa-unitateek zentzuz erabili beharko dituzte informazio eta komunikazio teknologiak— eta **Eraldaketari Euskarria** ematea —berrikuntza estrategia eta politika publikoetan erabiliko diren teknologia berriak baliatzeko orduan—.



Ekimenak eta Proiektuak

Informazio eta Komunikazio Teknologien Kudeaketa Estrategikoaren alorrean eremu edo segmentu teknologiko zenbait aztertzen dira aukerako egoerak ebaluatzeko eta praktika onenen araberako zerbitzuez hornitzeko, kritikotasuna, zaharki-tzea, eragina, arriskuak, etab. aintzakotzat hartuta. Gainera, segmentatze-irizpideak zehazten dira kanpo-hornitzaileak kontrata-tzea eta ASP zerbitzuetarako balizko joera ebaluatzea erraztearren. Eusko Jaurlaritzako Sailen operatibaren kudeaketa informatikoaren armonizazioari begira daude prozedura horiek guztiak; aldi berean, aldaketa kudeatzeko plan nagusi bat definitzeko tresnak dira, adierazleak eta zerbitzu-metrikak izango dituena.

Berrikuntza eta Aukera Berrien Identifikazioa lortze aldera, ezinbestekoa da ideiak, produktuak, zerbitzuak eta praktikak sartzea, administrazioan berrikuntzak egiteko xedean antolaketaren efizientzia hobetzeko eta horrela etekin handiagoak lortzeko orain eta etorkizunean. Era horretan, Euskadi zientzia eta teknologiaren polo europar (ERA) gisara konfiguratuko da eta etorkizunean arlo honetan lehiakorrak izango diren nodoak garatuko dira, ekonomia, gizarte eta erakundeetako eragileen berrikuntza-gaitasuna handitu eta zabaltzea helburu, Europarekiko elkarganatze teknologikoa lortu eta Euskadi jakintzan oinarritutako negozio-gune bihurtzeko.

Eraketa eta pertsonak aldatzeak dakarren eragina minimizatzeko taktika eta tekniken multzoari **Aldaketaren Kudeaketa** deritzo. Disziplina honek eraldaketa-estrategia orotan izaten diren arriskuak murrizten ditu, tartean dauden kolektibo guztien elkar-

ulertzea, kontsentsua eta konpromisoa erraztuz. Arrakasta, hots, erabakitako terminoetan betetzea proiektuaren helburuak, aldaketa-prozesuaren aurretiazko kudeaketaz eta metodologia sendo batez lortzen da.

Trebakuntza eta Jakintzaren Kudeaketa jorratzen dituen arloan, beharrezkoa izan da lantaldeetan parte-harteko irtenbideak jartzea. Joera nabaria detektatu ahal izan da e-Teaching irtenbideen inplementazioaren alde, e-Learning irtenbideen kaltean. **Jakintzaren Kudeaketa edo Administrazioa** erakundeetan maiz erabiltzen den kontzeptua da. Kontzeptu honen arabera, langileen jakintza eta eskarmentua transferituz beste langile batzuen-tzat bitarteko erabilgarriak bihur daitezke. Jakintzaren Kudeaketari lotutako aplikazioek kapital intelektuala metatzeko eta aplikatzeko prozesua ebaluatzen eta kudeatzen dute etengabe. Jakintzaren kudeaketaz adimen eta praktikako hainbat estandar batzen saiatu izan da; honako hauek, adibidez:

- Kapital intelektuala eta jakintzaren langilea jakintzaren ekonomian.
- Ikasi egiten duen antolaketaren ideiak.
- Antolaketa-praktikak, esaterako praktikako komunitateak edo orrialde hori korporatiboak.
- Jakintza eta beste teknologia batzuk (Intranet, edukiaren kudeaketa eta dokumentu-kudeaketa) identifikatzea eta transferitzea errazten dituzten jakintza-oinarriak.

Online Irakaskuntza bultzatzeko teknologiez baliatzea da gizartean gehien eskatzen den zerbitzua, nahiz era esklusiboan nahiz presentziako irakaskuntzaren osagarri bezala. Bestalde, Europar Batasuneko Kontseiluak, neurri askoren artean, ebazpen bat eman du estatuak eta Batasuna bera bultzatzeko ekimenak abian jartzera Informazio eta Komunikazio Teknologien integrazioa errazteko heziketa eta trebakuntzaren eremuan. Ebazpenak Europar Batasunaren lehentasun behinekotzat jotzen du oinarrizko eskumenen hobekuntza, bereziki teknologia ditgitalen eta informazio teknologien arloan. Horrez gain, teknologiak txerta-tzea eta goi-mailako irakaskuntzen programak berrikustea bizkortu ditzatela aholkatzen die estatu kideei, kultur baliabide publikoak erabiltzeko teknologien aukerak probetxatuz, hala nola liburutegiak, museoak eta artxiboak. Goi-mailako heziketaren programak batera gara daitezen europar dimentsioa sustatzera ere bizkortzen ditu, teknologia berrien alderdi pedagogikoen ikerketa, esperimentazioa eta ebaluazioa areagotuz, eta baliabide, plataforma eta zerbitzu eleaniztunen garapena sustatuz Europan.

Azken teknologiek ikaskuntzan sakontzeko bidea ematen dute. Hartara e-Teaching azaldu da, lehengo e-Learning baino dinamiko eta elkarreragileagoa. Lehenengoa dinamikoagoa da eta bere baitara biltzen ditu tele-laguntza, campus birtualak eta irakasleekiko elkarreragina bezalako kontzeptuak. **Etengabeko prestakuntza** izenekoak lagungarriak diren erreminta eta metodologia guztiak erabiltzea planteatzen du. Plataforma informatiko zehatz batzuk erabiliz oztopo fisikoak eta antolaketako eragozpenak saihesten dira, eta tutore zein ikasleen komunitate birtualak sortzea errazten da. Azkenik, izapidetze elektronikorako aplikazio berriak ezartzeak eta herritarren datuak gordetzeak (DBLO edo LSSICE eremuetakoak) betekizun berriak ekarri dituzte: segurtasun korporatiboa kudeatzeko prozedura eta politika berriak (isilpekotasuna, osotasuna, autentifikazioa, ukaezintasuna eta identifikazioa).

Aldaketa txiki bat dago Antolaketaren estrategia-ildo honen jarduketa-ardatzetan, segmentazioa Euskadiko beharretara hobeto egokitzekotan eta euskal Administrazioa modernizatzearen aldeko apustua berresteko.

Ondorioak

Informatika eta Telekomunikazio Plan berriari esker 90eko hamarkadaren amaierako asmo handiko planen ekimenak burutuko dira. Bestetik, Plana gakoa Informazio eta Komunikazio Teknologiek datozen urteetan izango duten bilakaeraren oinarriak jartzeko. Ez da atrebentzia esatea **2006-2009 ITP zehaztuko duena, teknologien arloan, Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren azpiegitura eta prozesuak izango direla datorren hamarkadan.**

Plan berria jarduketa-ardatz eta ekimenetan **laburbil** daiteke. Hauek lantegien emaitza dira, era horizontalean edo Sailik Sail sortutakoak, eta aurreplanen eta egungo egoera teknologikoaren ondorio. Aurrena ikuskera horizontala aurkezten bada ere, Sailek eta Erakunde Autonomoek beren ardurak aurrera eramateko oinarria berau dela ulertu behar da. Beraz, ekimen batzuen eta bestetzuen garrantzia parekoa da.

Herritarrari, enpresei eta beste administrazio batzuei zerbitzurik onena emango dion **Administrazio Elektronikoa** iristeko, paradigma berrira egokituko den **Barne Kudeaketa** garrantzizkoa da. Era berean, Barne Kudeaketa berriro eratzeak zerbitzu berrien sorrera lagunduko du. Nolanahi ere, argi dago estrategia-ildo biak elkarrekiko harremanean daudela; hori dela eta, 2006-2009 ITPk bezainbesteko garrantzia ematen die biei. Ezin uler ildo hauek, bestalde, **Azpiegitura Teknologiko** egokirik gabe eta egoera berria inplementatzea erraztuko duen **Antolaketarik** gabe.

Sailek eta Erakunde Autonomoek ekimenak mahaigaineratu dituzte aurreko ardatzetan. Ekimenok ekimen horizontalen osagarriak edo bultzatzaileak izango dira. Horregatik, **ekimenak kudeatzeko jardute ona** —2006-2009 ITPk sustatuko duena— Sailen arteko sinergia da, ardura horizontalak dituzten zuzendaritzen partaidetzaz batera, bai proiektu komunak landuz, batzordeen bidez edo aholkularitza teknikoko euskarri gisa.

Horrez gain, **Sail batzuk** Informatika eta Telekomunikzio Plana **ekimenen album-orrialde** bat bezala lantzen hasi dira (programek edo proiektu multzoek haiek bere gain hartzeko aukerarekin), ekimen bakoitzak sektore-izaera hartuz, negozio-helburu argi bat lortzearren. Bestetik, proiektuak lehengo aplikazioen goragoko mailan kudeatzeko joera detektatu da, **taldekatze programatiko-etan**, hain zuzen ere, bereziki lan-karga handiko Sailetan. Horrela izanik, estrategia-ildo ezberdinetako proiektuak taldekatzeko ekimenak landu daitezke (adibidez, atari berri batek azpiegituretako jarduerak eskatzen ditu, baina halaber Administrazio Elektronikoko zerbitzu telematikoak eta espediente berrien kudeaketa); horregatik, gehientsuenak **jarduketa-ardatzekiko izaera ortogonala** duten programak eta ekimenak izango dira. Ekimen horien erakusgarri dira Turismoko Informazio Sistemak, Artxibo Sistema Nazionala edo Euskal Ur Agentzia.

Horrela, Plan berriak sustatzen duen beste jardute on bat ageri da: **Sailen negozio-helburuak definitzea programen edo proiektu multzoen modura** (aplikazioen mikro-kudeaketaren mailatik harago), proiektu teknologikoen arrakasta bultzatzen baitu faktore honek. Hala egungo azpiegitura nola 2006-2009 ITParen jarduketa-ardatzak lerrokatzen dira eta egingarri bihurtzen dute paradigma hau.

Ekintza Planean lanak ez bikoizteko eran planteatzen dira proiektuak eta ekimenak, ahal dela, Sailen ekimenetatik etekin komunak ateratzeko eta ekimen horizontalen emaitzak ahal bezain ondo zabaltzeko xedez.



Ekintza Plana

Plan Estrategikoan deskribatzen diren Estrategia Lerroak eta Jarduketa Ardatzak gauzatu egiten dira Sailen Ekimen eta Proiektuetan edo zeharkako funtzio teknologikoak dituzten organoen Ekimen eta Proiektuetan (Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren Zuzendaritza eta Administrazio Elektronikorako eta Herritarren Arretarako Zuzendaritza).

2006-2009 ITParen garapen eraginkorrak bi berma ziurtatu behar ditu: batetik, proiektu horietako bakoitzaren bultzatzailearen eginahalak helburuei dagokienez lerrokatuta egon daitezela eta, bestetik, lan horiek etekinik handiena eman dezatela. Azken alderdi hau errazago gauzatu daiteke planifikazio egokia erabiliz, zeinak irtenbide korporatiboak berriro erabiltzea aurreikusiko baitu, beti ere arkitektura-kontzeptuetatik eta azpiegitura komunetatik abiatuta, egun direnak edo etorkizunean egingo direnak.

2006-2009 ITParen garapen eraginkorra lortzeko gida bat zehaztea da Ekintza Planaren helburua. Horretarako, Sailen ekimenak eta ekimen korporatiboak elkartu beharra dago, horrela eginahalak optimizatu eta produktu eta zerbitzu korporatiboen planifikazioa Sailen programekin koordinatuko baita.

Planaren kudeaketa eta finantzaketa

Informatika eta Telekomunikazio Planaren kudeaketa Jaurlaritzaren gainerako planifikazioarekin era koherente eta koordinatuan garatuko da, bereziki Informazio Gizartearen Euskadi Planean eta On-line Administrazioaren Plan Estrategikoan ezarritakoekin. Burutze-aldian, ITParen edukiak aipatutako Planen aurreikuspenetara eta eboluziora moldatuko dira, halako moldez non planifikatutako politika publikoekin bat etorri eta sinergia positiboak etengabe sortzen baitira haien guztien aurrerapenean.

Plan honek proiektuak koordinatzeko sistemak ere izango ditu, proiektu bakoitzetik sortzen diren jakintza eta tresnak probetxatzea ahalbidetzeko nahikoak. Horrez gainera, etengabeko hobetzearen mesedetan, premiak detektatzeko eta arazoak zuzentzeko sistema bat ere izango du.

Era berean, bere jarraipena eta koordinazio teknikoa egiteko behar adinako erremintez eta tresnez hornituta egongo da Informatika eta Telekomunkazioetako Planaren kudeaketa: batetik, proiektuen emaitzarik onenak ziurtatzeko, kostuari, denborari eta helburuen lorpen-mailari dagokienez; bestetik, koordinazio-prozedura komenigarrienak bermatzeko, Planaren eduki berdintsuak dituzten Jaurlaritzaren gainerako Planetan aurreikusten diren edo aurreikus daitezkeen neurrien eta ITPk proposatutako neurrien mihiztaketa albait hobea izan dadin.

ITParen Gainbegiratzea eta Kontrola

Aurreko ITParen itxieraren analisian egindako lanak eta Planaren jarraipenaren informazio-bilketaren esperientziak agerian uzten dituzte gainbegiratzea eta kontrola egiteko egungo prozeduren gabeziak, halaber Sailekiko komunikazio-tresna argirik eza, ezinbestekoak erraz egiteko edukiaren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa, Informatika eta Telekomunikazio Planaren inplementazioa eta emaitzak.

Testuinguru honetan, 2006-2009 ITP zehaztu eta planteatu ondoren, kudeaketa, gainbegiratzea eta jarraipena egiteko metodologia bat sartu beharra azaltzen da. Bere euskarria tresna informatiko berri bat izango da, eta helburu nagusia Planaren etengabeko ebaluazioaren eta bere jarraipenaren prozesuak era operatibo eta dinamikoan egitea ahalbidetuko dituzten mekanismoak eta prozedurak lortzea, kontrol eta jarraipen maila egokia bermatzeko eran, denborari zein formari dagokienez, jarduerak erraz zuzendu eta berriro bideratzeko aukera emanez (epeei, baliabideen erabilpen-mailari eta emaitzen lorpenari dagokienez).

Goi-mailako egutegia

Aurrekontu Bateratua

2006-2009 ITPk Planean zehaztutako helburu estrategikoei ekiteko behar diren diru-baliabideak esleintzen dizkio Sail eta Erakunde Autonomo bakoitzari:

Saila/Erakunde Autonomoa	Aurrekontua: ITP 2006-2009 (M€)					
	HW	SW	EJIE Zerbitzuak	Kanpo Zerb.	Bestelakoak	Guztira (M€)
01 Lehendakaritza	0,84	0,66	1,10	3,84	0,00	6,44
02 Lehendakariordetza	0,00	0,10	0,22	1,00	0,00	1,32
03 Ogasuna eta Herri Administrazioa	2,93	6,21	2,18	29,06	0,00	40,38
04 Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza (Justizia Admin. barne)	0,23	0,44	1,17	8,52	0,00	10,36
2007-2010 IKP	0,00	0,00	0,00	0,00	18,40	18,40
05 Herrizaingo Saila (Segurtasun Sailordetza barne)	0,70	0,09	0,63	2,67	0,00	4,09
06 Industria, Merkataritza eta Turismoa	0,43	0,25	0,94	9,02	0,00	10,64
07 Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	0,53	0,55	0,95	4,29	0,00	6,33
08 Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
09 Osasuna	2,14	3,27	1,25	11,81	0,00	18,47
10 Kultura	1,28	2,36	1,39	12,11	0,00	17,14
11 Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	0,10	0,66	1,16	10,45	0,00	12,37
12 Garraioa eta Herri Lanak	0,00	0,09	0,19	1,50	0,00	1,78
13 Nekazaritza eta Arrantza	4,13	0,98	0,59	4,51	0,00	10,21
43 Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE)	0,00	4,20	0,86	1,19	0,00	6,25
44 Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)	0,06	0,10	0,48	3,84	0,00	4,48
46 Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)	0,53	0,92	0,78	2,65	0,00	4,88
47 Emakumearen Euskal Erakundea (EMAKUNDE)	0,00	0,49	0,50	1,40	0,00	2,39
48 Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (OSALAN)	0,06	0,20	0,58	1,66	0,00	2,50
60 Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza (ITZ)	5,47	5,33	1,55	21,29	0,00	33,64
99 AMBZ/AEHAZ	0,60	0,03	0,75	9,35	0,00	10,73
Mantentzearen eta Azpiegituren Gastu Korrontea	0,00	0,00	0,00	0,00	416,25	416,25
GUZTIRA	20,03	26,93	17,28	140,17	434,65	639,05
Guztira (ITZ&AMBZ/AEHAZ salbu)	13,96	21,57	14,98	109,53	434,65	594,68

Estrategia Ildoen Plangintza: Xehetasunak

Lehendakaritza

Prentsa eta Komunikazioa

Web-atzipeneko kanala hobetzeko ingurunearen ebouzioa, informazio-iturrien bateratzea bilaketak egiteko eta gailu mugikorretatik kontsultak egitea bermatzeko.

- Web bidezko irisgarritasuna
- Bilaketen integrazioa (prentsa, irratia, TV)
- Goi-karguen mugikortasuna

Kanpo Harremanak

Zerbitzu berriak jartzea eta Web-aren diseinua egitea, E-Administraziorako Plataforma Teknologikoaren (PLATEA) inguruneko edukiak berriro katalogatzeaz gain.

- Diseinu berria
- Zerbitzuen konzentrazioa
- Edukiak berriro katalogatzea

Espedienteen Kudeaketa

Sistema bateratu korporatiboarekin integratzea administrazio-espedienteak izapidetzeko. Bestelako kudeaketa-proiektuak: Online sarbidea fitxategietara; Europar Batasuneko legeriaren goranzko aldia; euskarazko komunikazioak EBarekin; mugaz haraindiko lankidetza.

- Bezeroaren integrazioa, espedienteen izapidetzea
- Jaiotza, heriotza eta eskontza agirien eskaerak
- Laguntza Kudeaketa
- Espediente Kudeaketa
